



gurasoen txokoa 2006?07 ikasturteko asetze inkestaren emaitzak
erreportaiak Jakintza ikastolak 40 urte
zertan gabiltza potto.jakintzazu.net



agenda

IRAILA

LEHEN HEZKUNTZA

Izotz aroa filmaren ikuskizuna Donostiako belodromoan.

URRIA

LEHEN HEZKUNTZA:

3.maila: Ordiziako herria ezagutzen: mugak, zerbitzuak, eraikuntzak

4.maila: D'Elikatuz museoari bisita.

6.maila: Oñatiko Arrikruz kobazuloari bisita.

DBH

1., 2., eta 3. mailak: El Bola" filma euskaraz.

1.maila: Zientzia museora irteera.

4.maila: "Ikaspilota" topaketak Lazkaon.

DBHO

"Sexu heziketa" ikastaroa ikasleentzat.

"Sexu heziketaz" gurasoentzat bilera.

AZAROA

HAUR HEZKUNTZA

5 urte: Hosto eta perretxikoen erakusketa.

LEHEN HEZKUNTZA

1., 2., 3. eta 4. mailak: Txobxongiloak herriko antzokian.

1.maila: Karrantzako "Karpin abentura" dinosauroen museoari bisita.

2.maila: Ordizia Erdi aroan "D'Elikatuz"ekin.

5.maila: Iruñako planetariumera irteera.

6.maila: "Iparra eta hegoa" antzerki-lana ikastolako aretoan.

DBH

1., 2., eta 3. mailak: "En busca de la felicidad" filma gazteleraz.

3.maila: "Ikaspilota" topaketak Ordizian.

4.maila: "Hau da erritmoa" filma euskaraz.

DBHO

Drogomenpekotasunaren aurkako prebentzio kanpaina.

ABENDUA

"Euskararen eguna", abenduaren 3an, eta "Santo Tomas" eguna ikastetxe guztian.

30ean Pirritx eta Porrotx Majori kiroldegian

HAUR HEZKUNTZA

Olentzeroren etorrera.

LEHEN HEZKUNTZA

Gabonetako kantak herrian zehar.

DBH

2.maila: Arriarango urtegia irteera.

DBHO

Deustuko Unibertsitatetik informatzaileak geletan.

40 aldiz

Badoa aurtengo urtea, badator Olentzero, urtaro berria eta urte berria ate joka beste behin ere.

Aurtengoan mereziko du geldialdi bat egitea eta atzera begiratzea. Ba al da-akizue 40 aldiz errepikatu dela jarreraian, Jakintza ikastolan urtea joatearena eta Olentzero etortzearena? Bai, aspaldi, 1968. urtean hasi zen Ja-kintza ikastolaren historia. Orain dela gutxi jaso dute andereino historikoak merezi zuten aitortza. Asko eta asko jubilatuta daude, beste batzuk jubila-tzeaz. Ondo merezia dute eta goza de-zatela bizitzaren etapa berrian!

Baina ezin gara bizi atzera begira bakarrik, Olentzerok urtero zakua bete ilusio ekartzen digu eta heziketarena sekula amaitzen ez den kontua da. Orain dela 40 urte abiatutakoak bezala, gaur egungoak ere ilusioz ekiten diogu egunsentiari Jakintza ikastolan.

El año ya está dando sus últimos coletazos y mientras esperamos la llegada del Olentzero nos adentramos en un nuevo invierno, antesala de 2008. Al echar una pequeña mirada hacia atrás nos damos cuenta de que esta misma circunstancia ya ha tenido lugar otras muchas veces en Jakintza, cuarenta exactamente.

Fue en un ya lejano 1968 cuando comenzó nuestra andadura; cuarenta años de historia forjada con el trabajo de todos nosotros. Muchas de aquellas personas, que podemos calificar como históricas, han recibido recientemente su bien merecido reconocimiento. Pero aunque a veces resulte gratificante, no podemos quedarnos mirando al pasado sin afrontar el futuro. También para este año hemos pedido al Olentzero un saco repleto de esa misma ilusión que año tras año hemos mantenido y que ha hecho que alcancemos pletóricos y orgullosos nuestro cuarenta aniversario.

Diariovasco.com lehiaketan, Euskaljakintza txapeldun!!!

Berriro ere albiste pozgarriak iritsi zaizkigu Jakintza ikastolara. Azaroaren 29an eman ziren ezagutzera diariovasco.com lehiaketako irabazleak. Gipuzkoako web orri onenak izendatzea zen lehiaketaren helburua. Pertsona adituez osatutako epaimahai baten iritzia kontuan izanik egin ziren aukeraketak. Aurrez, antolatzaileek adierazita, bagenekien hiru fina-listen artean geundela.

Sari banaketako ekitaldian bertan jakinarazi zuten lehiaketa Euskaljakintzak irabazi zuela. Gure kasuan, web pertsonal onenaren saria da eman digutena. Gustura igo ziren oholtza gainera Maite Goñi irakaslea eta Maialen Barreiro DBHO 2ko ikaslea. Ondoren *lunch*-a dastatzeko aukera izan genuen eta, horretan ari ginela, diariovasco.com-eko arduraduna den Iñigo Kortabitartek jakinarazi zigun, epaimahaikoez gain, publikoaren saria ere Euskaljakintzak irabazi zuela. Benetan pozgarria horrela izatea. Horrelakoetan gertatzen den moduan, zorion ugari jaso dugu Jakintza ikastolan gertakariaren harira. Esan beharrik ez dago animua ema-



ten duela orain artean bezala lanean jarraitzeko.

Y ya van Una vez más la comunidad de Jakintza ha recibido con enorme satisfacción la noticia de un nuevo premio. El pasado 29 de noviembre Euskaljakintza fue distinguida como la mejor página web de Gipuzkoa por el jurado del certamen diariovasco.com.

Unido a todo esto, el hecho de haber recibido también el primer premio en la valoración hecha por el público no nos queda más que continuar con la ilusión y el ánimo en el trabajo en este ámbito.

GURASOEN TXOKOA

2006-07 ikasturteko gurasoen asebetetzea jakiteko inkestak igorri zitzaizkizuen maiatzean. Iazko ikasturtean HH-ko 5 urte, 3. maila, 6.maila, DBH 4 eta DBHO2ko gurasoei pasa zitzairen inkesta. Orain guri dagokigu bertan ageri diren emaitzak zuei azaltzea.

Esan behar dizuegu iazko ikasturtean gurasoen asetzea aurreko ikasturtearen antzekoa izan zela eta orohar, gustura agertzen direla ikastolaren funtzionamenduarekin. Igoera nabarmenenak orientazio zerbitzuan eta ikastola eta gurasoen arteko komunikazioan suertatu dira. Bestalde, aurreko ikasturtean baino balorazioa apur bat baxuagoa izan da, ikastolako gestio organoen funtzionamenduari eta autobus zerbitzuari dagokionez.

Urtero egiten den moduan, iazko ikasturte amaieran sakon aztertu ziren emaitza guztiak eta aurtengo ikasturterako dagozkion hobekuntzak martxan jarri dira

Grafikoa ulertzeko, bertan ikus ditzakezue inkestan galdetu ziren 11 atal nagusi eta bakoitzari eman diozuen puntuazioaren batz bestekoa. (Balorazioa 1e-tik-10era izan zen). Grafikoan lau ikas-turtetako emaitzak

agertzen dira (2003-04, 2004-05, 2005-06 eta 2006-07)

Eskerrak eman nahi dizkizuegu jasotako erantzunarengatik, izan ere, oso baliagarria eta garrantzitsua baita gura-soengandik jasotako informazioa edo iritzia.

	2004	2005	2006	2007
irakaskuntza ? apendizaiak	7,75	7,5	7,94	7,93
tutoreekin harremanak	8	8,25	8,38	8,48
lana ebaluatze modua	7,25	7,25	7,81	7,95
orientazio zerbitzua	6,5	6,25	7,42	7,66
aktibitate estraeskolarrak	7,5	6,75	7,84	7,80
funtzionamendu orokorra	7,75	7,5	7,84	7,80
ikastola guraso komunikazioa	7,55	7,25	7,74	8,02
gestio organoen funtzionamendu	7,55	7,5	7,91	7,74
autobus zerbitzua	8	6,75	7,97	7,78
jangela zerbitzua	8,5	8,75	8,69	8,64
haurtzaindegia	8,6	8,5	8,79	8,85

2007/2008 ikasturtea

GALDERA IREKIAK

?Haur Hezkuntzan:

-Kanpoko patioa txukundu beharra, zakarrontziak egunero hustu behar dira

-Zorrien arazoari buruz ez dira neurri berezi eta beharrezkoak hartzen.

-Ikastolako web orria oso interesgarria iruditzen zait baina oso poliki doa.

-Oso ondo dago, neguan batez ere, barruko patioa irakita egotea Villa Eugenia

-No entiendo que nos cobren el servicio de guardería cuando nuestro hijo se queda en el comedor. Yo creo que todo tendría que ser un servicio

Lehen Hezkuntzan:

-Tutoretzako programa ezagutu nahiko nuke. Bakarkako tutoretza ere martxan jarri beharko litzateke


- La actividad extraescolar tendría que ser una actividad educativa para que sean más respetuosos con las personas y con el entorno. Veo a los jóvenes muy descarados y muy egoístas.

-Durante el verano se organizan las colonias de ingles. Algunos de los que acuden a esas colonias utilizan el comedor escolar. Resulta que los viernes no se puede utilizar el comedor. Esto nos crea muchos problemas, es un tema viejo y todavía no se ha encontrado la solución al problema.

DBH eta DBHO

-DBHOko geletan dauden berogailuek ez dute behar den bezala berotzen.

-Mendi irteera gehiago antolatzea komenigarri ikusten dugu gure seme/alabentzat.



El pasado mes de mayo se envió una encuesta a los padres del último nivel de cada etapa, así como a los del tercer curso de Primaria, para pulsar el grado de satisfacción con respecto al funcionamiento de la ikastola.

A resaltar el hecho del considerable aumento registrado en los apartados del servicio de orientación y en el de la comunicación entre los padres. Por otra parte, han descendido los resultados referentes al funcionamiento de los órganos de gestión y al servicio del autobús.

Junto con la representación de estos resultados en un gráfico, también se incluyen a continuación las aportaciones y opiniones personales sobre diversos temas.

Para una mejor interpretación del gráfico, en él aparecen los once apartados en los que se dividía la encuesta, así como la puntuación media otorgada a cada uno de ellos (de uno a diez) en los cuatro últimos años.

Jakintza ikastolaren 40. urteurrena

Hasierako zalantzak eta egindako bidea

Jakintzaren 40. urteurrena (nork esan!) kurtsu honetan betetzen delako, gogoratu nahi izan ditugu ikastola sortu zen garaiko gora-beherak, eta zuzenean sortzaileetako batzuegana jotzea erabaki dugu.

Alejandro Ormazabal, Mikel Arrese, Pedro Sukia eta Juan Antonio Galparsoroekin elkartu gara. Jakin badakigu gehiago ere bazirela, adibidez, Jose Ramon Gaztañaga, Xebe Lonbide edo Lubxi Zaldia. Denak ere lan izugarria egin zutenak. Horien lan eskergari zor diogu, hein handi batean, oraingo indarra, eta nortasuna.

Nola, edo nondik sortu zitzaizuen, bada, ikastola eraikitzeko gogoia eta indarra?



Pedro Sukia

P. Sukiak: Garai hartan hemengo giroa erabat erdalduna zen, nahiz eta batzuk euskaraz bazekiten. Halere hauek, azkenean, euskaraz egiten bukatuko zuten.

A. Ormazabalek: Ez hizketan bakarrik, baizik irakaskuntzan, zeren euskarak alfabetatua behar zuen, gazte-gaztetatik alfabetatua. Ez guk bezala. Gurea sukaldeko eus-kara zen, etxean ikasitakoa egiten baike-nuen.

Bai joskera ederrekoa, ordea...

A.O.k: ... baina sukaldekoa.

M. Arresek: Hemen, Ordizian, giroa erabat erdalduna zegoen, batzuk beldurragatik, besteak ohituragatik, bestean hala nahiago zutelako, gehienak erdaraz egiten zuten.

J. Antoniok: Ikusten zen, gerora begira, euskararekin ez bazen ezer egiten, erdara zeharo nagusitu eta euskara galdu egingo zela.

M. A.k: Ni ordurako antzerkigintzan ari nintzen, Ordizian talde bat antolatzen. Bazen hori ere gaizki ikusten zuenik, eta bat baino gehiago, gainera. Hasieran asmoa edo helburua euskarari indarra ematea zen, galtzen ari zelako.

Nola pasa zineten euskara indartzeko us-tea eta gogoia izatetik ikastolaren proiektu bat burutzera?

J. A.k: 64-65 inguruan, jada, nolabaiteko mugimenduak hasiak zeuden Goierriin. Gogoratzen naiz Lazkaotik fraideak etortzen zirela guztiorren berri ematera.

Non biltzen zineten?

J.A.k: Ataunen Lazkaon ere bai, fraideekin.... Tolosan ere izaten ginen. erdi klandestinitatean.

P. S.k: Dena isilpean. Beharko!

Beraz, Eliza tartean zen.

A.O.k: Eta eskerrak Asko lagundu zuen. Egia esan, bera izan zen bultzatzaile nagu-sienetakoa. Aipatzekoak ditugu Jazinto Se-tien, Imanol Aldaregia, Bermejo jauna bera ere, hemen bikario egon zena, eta abar

J.A.k: Arazoan zen, jakina, instituzio bat behar zela-eta horretan eliza ezinbestekoa bilakatu zitzaigun. Beharrezko amarrua zen legalizazio aldetik. Fidel Eizagirre apezka izan zen lehenengo zuzendaria. Ezinbestekoa genuen Elizaren babesaren ofizialtasunaz baliatzeko. Berehala hasi baitziren inspektoreak ere agertzen hezkuntzaren kontrolerako.

Eta elizaz kanpoko jendea, zuek?

J.A.k: Honela planteatu zen arazoa: bale, giroa badago, ados geunden (batzuk behintzat) lanerako, baina jakina, gorpuztu egin behar zen, proiektu bat burutu.

Izan ere latza izango zameak, bat-batean eskola normaletatik atera, eta ezer seguru eduki gabe hor hastea.

P. Sukiak: Oso latza, nola irtengo zuen jakin ezta militantzia hutsa.

J. A.k: Guraso Elkartera jo genuen. Hango bazkidek entzun orduko jarri ziren gure alde, laguntzeko prest eta lanean.

Ordurako ba al zegoen Guraso Elkartea?

A. O.k: Eta indar handiarekin, gainera. Berez, partidu baten papera betetzen zuten. Entitate legala zen. Jendearekin komunikatzeko ere gurasoen zerrendak eta helbideak, denak, han zeuden.. Oso garrantzitsua jendearen diru-laguntzak bide-



Juan Antonio Galparsoro

J. A.k: Jose Ramon Gaztañaga zegoen orduan buru. Beregan joan ginen planteamendu horrekin. Egia esan, Gipuzkoan ez ginen bakarrak: ordurako Donostian-eta hasita zeuden (Lizeo Santo Tomas adibidez) eta guk ere geure bileretan planteamendua nahiko gorpuztua genuen

A. O.k: Goraiatzekoa da Jose Ramon Gaztañaga. Hura izan zen gure eredu, gure akuilu, gure animoa. Hura suertea izan genuena gizon harekin topo egitean. Ez zen geratu ere egiten, bere enpresetako lana izugarria izanik, gureganako eskaintza eta ikastolagatik egin zuena ez diogu inoiz behar bezala eskertuko. Zenbat aldiz joan nintzen bere aurrera dimititzeko asmoa-rekin, zeren nik ere tailer koxkor bat neu-kan. Bada bertara joan, eta bera telefonoz bankutako jende handiarekin hizketan ikusita esaten nion nire buruari: *horrek izango dituen buru hausteekin aurrera jarraitzen badu guk zergatik ez?* Orduan dimititzeko gogo guztiak joaten zitzaizki-dan.

M. A.k: Eta eskerrak, orduan, orain bezala, denen beharra baikenuen, eta dimititzen hasteak itxura txarra emango zuen.

J. A.k: Handik aurrera proiektuak eta asmoek beste gorputza hartu zuten. Izan ere guraso jatorrak eta prestigio handikoak horren alde atera baitziren. Hori izan zen bultzatzaio definitibo.

P. S.k: Jendeak ikusten zuen asuntua ez

Jendeari karga txikiena ezartzea izan zen gure ahale

zegoela jende txori-buru batzuen eskutan, seriotasun bat bazegoela.

Halere, hori dena antolatzeke iondearen



Alejandro Ormazabal

A. O.k: Erabatekoa izan zen. Lokalak zeuzkanak guretzat lagatzen zituen. Aurrena orain Pelotazale Elkarte dagoeneko, Sanperio kalean. Gure tailerra gero, gu Zaldibiara joan ginenean, 7 urte gutxienez, 1975 urtearen bueltan. Gero, hura txiki geratu eta Karmeliten eraikina (hutsik zegoen) erosi nahi izan zenean, ba-da dirua lortzeko jaialdiak antolatu... fes-tetan tabernak ipini eta lanean.... jendea denak emanda ibili zen.

Aipatzekoa da Antonio Hidalgo, Bilbo enpresako gerenteak erosi zituen akzio mordoa.

Hori zen, orduan, diru iturria, jaialdiak, tabernak...

A. O.k: Eta Lutxi zena, emagina. Horrekin gogoratzen naiz, orduan kontuak nik eramaten baintuen. Hainbeste jende eza-gutzen zuen... alde guztietatik biltzen zue-la dirua. Zoragarria emakumea.

J. A.k: Gure filosofia gurasoei karga ekonomiko txikiena ezartzea zen. Ez genuen zerga bikoitza ordaindu nahi: denek eskola alde batetik eta gurea bestetik.

M. A.k: Euskaldunak izateagatik eta izateko, alegia.

J. A.k: Gu mugitzen ginen lokalak txiki geratu ahala. Karmelitetakoa Usabiagak erosi zuen etxebizitzak egiteko, eta haren trukez guk Villa Eugenia eraiki genuen. Bestalde, San Ignazioko eraikina hasi ginen begiz jotzen. Eskola nazionalak zeu-

den han, eta ikastola indartu ahala haiek beheraka zihoazen. Gu batxilergoaren premian aurkitzen ginen, berriz, seme-alabak institutura bidaliz genbiltzan-eta. Eta alkatte jaunari egin genion hara joateko plan-teamendua, eraikina nazionalekin batera konpartitzeko. Onartu egin zuen, eta bi urte barru, nazionalak desagertu zirenean guretzat geratu zen, eta gurasoei sosik kostatu gabe. Hori zen gure filosofia.

Bada hirugarren arloa, politikoarekin eta ekonomikoarekin batera dihoana: hezkuntza. Hor ere zailtasuna gainezka, ala?

A. O.k: Jendea arazo gogor batek ke...



Mikel Arrese

M. A.k: Baina ez hori bakarrik. Dena airean zegoen: ez testu libururik, ez euskal lexikorik, batua ere orduantxe osatzen... andereñoen edo maisuen euskara maila, prestakuntza...

P. S.k: Egoera horretan zaila zen jendea bere haurrak ikastolara bidaltzeko konben-tzitzea.

J. A.k: Horratik eduki genuen beti garbi gureak berezia izan behar zuela. Erdaraz "romper moldes" esaten dena. Gure hezkuntzak ez zuela erdarazkoaren kopia izan behar, haratago joan behar zuela. Beraz bi andereño Mari Karmen Oiharbide eta Rosarito Lasa Donostiara bidaltzea era-baki zen, han dagoeneko hasita baitzeu-den. 6 hilabete, edo egon ziren trebatzen. Kalitatearen kezka eta ardura gu guztion-gan zegoen beti.

Zegoen eta dago, nonbait, zeren eman berri digute urrezko Qa, 2005ean. Hori ikusita ze sentiarazten dizue?



Jose R. Gaztañaga (1934-89) izan zen sorreran, eta geroko urte askotan ikastolarengatik lan eskerga eta garrantzitsua egin zuena. Bertako juntako presidente ere izan zena 1967tik 74ra birtartean.

Ez genuke 40. urteurrenak ematen digun aukera galdu nahi berari omenalditxo hau eskaintzeko, egindakoa eskertu eta ondorengoei eredu moduan aurkezteko.

Hobeto ezagutzearen hona hemen zein zen *J. R. Gaztañaga* jauna Calderería Gaztañagako zuzendaria (1965-79)

San Migel klinikako gerentea (1979-83).

Jakintzako Juntako presidentea (1967-74).

Ordiziako alkate (1979-83)

EAJren GBBko kidea (1984-88)

Sari gehiago ere jaso ditugu, kalitateari lotuak.

J. A.k: Oraingoa ikusita sortzen zaigun pozak kitatzen ditu orduan izan genituen zalantza eta lan guztiak. Zoriontsu izateko modua da.

Pozik zaudete, orduan?

Denek: Oso, baina ondorengoan lan bikainagatik ere bai, ehi

Jakintza ikastolaren partez mila esker sortzaileei, baita ondoren-

Ausardia eta imajinazioa ziren gure tresnak

*goei ere, musutruk hainbeste aha-
legin egin duzelako ikastolaren
alde.*

Rosarito Lasa eta **Mari Karmen Oiarbide** izan ziren orain dela 40 urte Sanperio kaleko lokaletan lanean hasi ziren lehenengo irakas-leak. Urte bat beranduago hasi zen **Lutxi Oiarbide**. Hori gertatu zenetik berrogei urte igaro eta gero elkartu dira hirurak, eta kontu kontari jardun dira prestatutako galderei erantzuten. Liburu oso bat idazteko hainbat gertaera eta kontakizun izan arren, hementxe ikusiko dituzue hiru andereino historikoen erantzunak.

Orain dela 40 atzera egin eta nola gogoratzen duzue hasera hura. Nork, nola esan zizuen Jakintza ikastolako irakasle izan nahi al zenuten?

Ordizian 1966aren hasieran, Ikastola sortzeko asmoarekin guraso taldea sortu zen. Garai hartan euskara etxean gordeta zegoen, inor gutxik erabiltzen zuen kalean. Guraso talde horretako partaide batek eskatu zigun ea irakasle prestaketak egingo genituen ikastolako andereño izateko.

Baiezkoa eman eta gero nolako formazioa jaso zenuten?

Ordurako bazen Donostian *Andereñoen Erresidentzia*. Bertan Ikastolako formakuntza aurrera eramateko antolatua: euskara, literatura, historia eta gizarteko klaseak, praktikak, aldiz, Donostialdeko Ikastoletan egin genituen. Hauen pedagogia aurrerakoa zen, horrek bereizten gintuen beste eskoletatik.

Formakuntza honetaz aparte, ikastaro ugari egiten genituen: Aste Santuan, eta udan hilabete osoa, garai hartako pedagogi korrante berrietatik edanez: Freinet, Decroli, Montessori, Piaget, Rosa Sensat

Gogoratzen al dituzue garai hartako gelak, baliabideak nolakoak ziren?

Hasieran, Sanperio kalean tailerra izandako lokala zen. Bi gela ziren. Mahairik ez zegoen, lurrean eserita belaun gainean okumezko xafra bat erabiltzen genuen.

Foliok, margoak, bi koloretako arkatzak, plastilina, eta guk sortutako zenbait material. Genuen liburu bakarra Martin Txilibitu zen. Lan asko egiten genuen material bizia manipulatuz, (frutak, hostoak, zekaleak, mozorroak,).

Hirugarren urtean, *jada*, Karmeldarren ikastetxea erosi genuen.

Zer egiten zenuten egunero sortzen ziren zailtasunak gaitzitzeko?



Ausardia eta imajinazioa zen oztopoak gaitzitzeko erabiltzen genuen estrategia. Denok, guraso, juntakide, herritarrak eta irakasleok bat eginda jo genuen aurrera. Zailtasunetako batzuk, ekonomikoak, legeari buruzkoak, eskolako materiala osatu beharra, pedagogi berrietan egunean egotea ziren.

Gurasoek erakarri behar genituen eta egiten genuen lan pedagogikoaren ziurtasuna eman behar zitzaion. Beste eskoletan ez bezala, haurrek hiru urterekin hasten ziren, neska eta mutilak elkarrekin, euskara hutsean, abestiak, jolasak, zentzumen lanketa. Horretarako bilera asko egiten genituen.

Nola moldatzen zineten garai hartan testu libururak eta bestelako ikasmaterialik gabe?

Ahozko lanketa zen oinarrietako bat, ipuini, abesti, joko, antzerki. Beste gai batzuek lantzeko haurrek zekarzkien bizipenetatik abiatzen ginen.

Horrela lantzen genuen, hizkuntza, irakurketa naturala, matematika logika erabiliz, gizarte gaiak, eskulanak, musika, psikomotritzitatea

Garai horretan ez zegoen euskaraz idatzitako materialik, beste hizkuntzetako, katalana, fran-tsesa materiala itzultzen genuen. Astean hiru-tan bailarako irakasleekin elkartzen ginenez batako besteri materialaren berri ematen genuen, gure beharrak osatu ahal izateko.

Ikas-materiala osatzen joateko irakasleen artean Gordailu izeneko elkarte sortu zen, era berean ikastaroak ere bertatik antolatzen ziren.

Ordizian euskara. Nolakoak ziren urte haiek?

Urte haietako egoera zela-eta, nahikoa baztertua zegoen euskara; inmigrazioa ere handia... Euskara etxeko hizkuntza zen, kalean ez zen batere entzuten azoka egunean izan ezik. Gure Ikastolara etortzen zirenak euskara zekiten haurrak ziren gehienak. Pixkanaka, gaur eskolak ere eraiki ziren, eta nolabaiteko

euska-rarekiko kontzientzia zabaltzen hasi zen.

Nolako harremanak zenituzten Ordizian edo bailaran zeuden beste ikastolekin?

Herri bakoitzean guraso, herritar eta irakasle ez osaturiko Ikastolako batzordeak zeuden. Beasainen elkartzen ziren Ikastoletako arazoak aztertzeko. Bailara bakoitzeko ordezkariak osatzen zuten Urreburuko Batzorde Nagusia.

Bereziki garai hartako zerbait azpimarratu nahi bazenute?

Zerbait berezia aipatzekotan euskal eskola sortzea, eskola hori aurrera eramateko guraso eta irakasle elkarlanean aritzea, pedagogi berritzaile batean oinarritutako eskola izatea azpimarratuko genituzke.

Aipatu eta eskerrak eman nahi dizkiegu proiektu honetan sinistu eta bidean lagundu digu-ten guztiei.

Rosarito Lasa ikastolaren sorreratik dago Jakintzan, aurten jubilatuko da. Asko aldatu al da Jakintza ikastola?

Bai, material eta eraikuntza aldetik egon den aldaketa ikaragarria izan da, gaurko ikastola teknologia berrietara irekia eta eguneratuta dago eta egungo baliabide materialak oso egokiak eta onak dira.

Baina esango nuke, lehen ikastolaren sorreran zegoen helburua eta gaur egungo ikastolaren helburuak berdina izaten jarraitzen dutela. Beti esan dugu eta gaur ere berdina pentsatzen dugu, euskal kultura oinarrian izan behar dugula euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko. Horrez gain, pertsona bere osotasunean hezteko, etengabeko hobekuntzaren bidez. Horretarako ikastolako partaide ezberdinen (guraso, irakasle eta ikasle) elkarlanean oinarritzea ezinbestekoa delarik.

Hori guztia egin dugu eta egingo dugu gure ikasleek, biharko egunean eta bizitzaren aurrean prestakuntzarik onena izan dezaten.

40 urteko bidea, urtez urte

Beste ikastola askotan bezala, 1960-70ko hamarkadan, Ordizia euskalduntzeko zerbait egin behar zela eta, ikastolaren proiektua ermetzen hasi zen. Lehenengo aipamenak 1965. urte ingurukoak dira.

1968. urtean, sortzen da Jakintza Ikastola eta poliki poliki hasten da bere lehenengo urratsak ematen. 50 ikasle inguru elkartzen dira Sanperio kaleko Pelotazale Elkartean. Bi, Rosarito Lasa eta Mari Karmen Oiharbide, izango dira andereinoak.

1969. urtean, Ikastolen Federakuntza-ko partaide egingo da Jakintza Ikastola



1970. urtean, Herrian dagoen San Jose ikastetxea erosten dute Ikastolako bazkide eta laguntzaileak. Fidel Eizagirre, Ordiziako apaiza agertzen da Jakintza ikastolako titular bezala.

1971. urtean, Zaldibia, Legorreta, Itsasondo, Ikaztegieta eta Amezketatik etortzen

dira Jakintza ikastolara ikasleak. OHOk 3 maia egitea etortzen dira.

1973. urtean, Nueva ley de Educación para centros de E.G.B. delakora egokitzeak, obra handiak egiten dira ikastolan.

1977. urtean, Babxilergo ikasketak emateko baimena lortzen du Jakintza Ikastolak.

1981. urtean, San Ignazio eskola publikoko lokalak erdibana erabiltzea onartzen da.

1983. urtean, San Ignazioko eskola publikoaren eraikuntza, Jakintza Ikastolaren erabil-penerako izatea onartzen da osoko.

1993. urtean, Villa Eugeniako eraikuntza berria inauguratzen da, bertan izango dira aurrerantz Haur Hezkuntzako haurrak.



Jakintza ikastolako 25. urteurrena ospatzen da.

Maiatzean Euskal Eskola Publikoaren legeari dagokion erabakia hartzen da eta sare publikoan ez integratzea erabakitzen da.

Urriaren 3an ospatzen da Ordizian, Kilometroak 93. Helburu nagusia, Villa Eugeniako eraikuntzak dakartzan gastuak arintzea izango da.

1995. urtean, Publikatu ez diren beste ikastola askorekin batera Partaide bigarren graduako kooperatiba osatzea erabakitzen da.

1996. urtean, langileen kooperatiba sortzen da.

1999. urtean, Jakintzazu, buletina, eta, Juanita Amundarainen oroimenez, Euskal kantuen taldea sortzen dira Ikastolan.

2000. urtean, DBH3. mailan gizarte arloa ingelesez lantzen hasten da.

2002. urtean, Kalitatearen zilarrezko Q-a lortzen du Jakintzak.

2004. urtean, Saninazioko patioa estali eta frontoi bat egiteko obrak alde batetik.

2005. urtean, Kalitatearen urrezko Q-a lortzen du Jakintzak. IKTeroak bloga sortzen du Jakintza ikastolako IKT taldeak

2006. urtean, Xabier Araña ikasleak bere babxilergo ikasketak amaitu ondoren, Gipuzkoako espediente akademikorik onena lortzen du.

2007. urtean, Interneten erabilera heziketan dela eta, Argia saria lortzen du IKTeroak blogak.

2007. urtean, Estatu mailako, gelako blog oneraren saria lortzen du Euskaljakintzak.

Se celebra este año el 40 aniversario de Jakintza ikastola y por este motivo hemos querido recordar las incidencias de aquella época con algunos de los fundadores,

El ambiente castellano parlante así como la necesidad de alfabetización en euskara fueron los motores que impulsaron la creación de la Ikastola, así como el futuro incierto que planeaba sobre el euskara debido a la gran fuerza del castellano.

Hacia los años 64-65 comenzaron los primeros movimientos en el Goierri y se trabajaba con los frailes en semidandestinidad. El estamento edesiástico ha sido de gran ayuda y uno de los impulsores del euskara, entre ellos destacaríamos a Jacinto Setien, Imanol Aldaregia, Bermejo etc. Necesitábamos de la iglesia, sobre todo por temas de legislación; el sacerdote Fidel Eizagirre fue el primer presidente y requeríamos de su protección para valernos de su oficialidad ya que empezaban a aparecer los primeros inspectores de educación. Sentía que el ambiente era propicio, había un acuerdo a la hora de trabajar y lo más importante: un proyecto que crear.

Lo que verdaderamente resultó complicado fue intentar atraer a alumnos de otras escuelas, todo se resumía en pura militancia. Para entonces ya existía la asociación de Padres, asociación que tenía, por otro lado, mucha fuerza y que en cuanto supo de nuestro proyecto no dudó en echarnos una mano; imprescindible a la hora de gestionar la ayuda económica y conseguir listados y direcciones de padres. Acudimos a José Ramón

Gaztañaga que estaba a la cabeza de dicha asociación y le planteamos nuestra propuesta, ya bastante avanzada. Él fue nuestro modelo, acicate y estímulo, nunca le agradeceremos suficientemente la labor realizada. A partir de este momento nuestro proyecto adquiere mayor firmeza y el empujón definitivo se deberá a la participación de padres con grandes inquietudes.

La implicación de la gente fue esencial, se cedían locales como el de la calle Samperio, para luego, años más tarde, adquirir el edificio de las Carmelitas cuya compra se sufragó con dinero del pueblo, festivales y tómbolas. La matrona Lutxi fue un eslabón importante a la hora de recaudar fondos.

A medida que íbamos fortaleciendo nuestro proyecto, la escuela pública decrecía y nuestros ojos estaban puestos en el edificio que ocupaba, San Ignacio, necesitábamos crear nuestro propio Bachillerato, se pactó con el alcalde el hecho de que una vez desapareciera la escuela pública, el edificio quedara en nuestras manos, sin coste alguno para los padres y siguiendo con nuestra filosofía.

Teníamos claro que debíamos romper moldes y apostar por una enseñanza comprometida y vanguardista en cuanto a pedagogía se refiere; en contra teníamos la incertidumbre de realizar los estudios en euskara, el temor de desenvolverse mal en la Universidad, la falta de material didáctico, el nivel de euskara etc. Por todo ello animamos a Rosarito Lasa y Mari Karmen Oiharbide iniciaran cursos de formación.

Jolas garaian ere euskaraz

Aspaldiko urteetako gaia dugu Euskararen Normalkuntza. Eta aspaldiko urte hauetan Jakintza ikastola lanean ari da eremu ezberdi-netan euskararen erabilera ziurtatzeko asmoz.

Eremu ez-formalean gauzatzen diren harremanak oso garrantzitsuak dira euskararen barneratzean eta honegatik antolatzen dira hain gogoko dituzten jolas eremu hauetan ekintza ezberdinak.

LHko 5. eta 6. mailako ikasleak Altxorraren Bila ari dira. Emandako pisten bitartez euskal esamoldeen edo esaera zaharren zatiak lortuko dituzte. Zati guztiak izatean horma-irudi batean jarriko dituzte txukun-txukun. Talde irabazleak gelakideei azalduko die esamoldearen edo esaera zaharraren esanahia. Ondo pasa euskaraz!



Continuando con nuestro proyecto de normalización del euskara y queriendo impulsar su uso en todos los ámbitos de la ikastola los alumnos de tercer ciclo de Primaria han tomado parte en un

entretenido juego. Siguiendo las pautas de En busca del tesoro han completado unos paneles con diferentes proverbios y refranes que han ido explicando a sus compañeros de clase.

Oiñatiko haitzuloetan

Gogoan dute oraindik, seigarren mailako neska-mutilek, Oiñatira egin zuten txangoa. Bertan **ARRIKRUTZ** izeneko haitzuloa bisitatu zuten, eta Arantzazu ere bai, jakina!

Erakuslearen laguntzaz Arrikruzeko kobazuloetan barna ibili ziren, bostehun metro inguru. Lehenik, sarreran dauden estalaktita eta estalagmiten edertasuna behatzeko aukera izan zuten. Ondoren, haitzulo honek dituen sei solairuetatik hiru bisitatu zituzten. Ondo dakite Arrikruz kare eta kaltzita harriez osatuta dagoela, eta bertako beste haitzuloekin elkartuz gero, hamabost kilometroko luzera hartzen duela.

Txundituta irten ziren gure neska-mutirik ikusi zutenarekin eta hori ez zutenik guztia ikusi! Bide batez, Arantzazura ere joan ziren. Bertan eliza eta Oteizaren eskulturak ikusi ahal izan zituzten. Ez ziren haserre etorri 6. mailako ikasleak.

Esan beharra dago, egun batzuk lehenago, Ordiziako mendizaleek, Zumaiako flixak ikusteko irteera antolatu zutela eta gure ikasle asko joan zirela.

Hau guztia gela barnean lantzen ari ziren gaiarekin lotuta zihonan, beraz, majo jantzita, inorako lotsarik gabe dauzkagu gure ikasleak.



Los alumnos 6º curso de Primaria han realizado una preciosa excursión a la cueva de Arrikruz en Oiñati. En el interior de un paraje misterioso y a través de las tres galerías que pudieron recorrer fueron testigos de los caprichos de la naturaleza. Al finalizar la jornada vistaron el cercano santuario de Arantzazu.

De una forma paralela a este tema, muchos de estos alumnos también participaron en la salida montañera a Zumai para ver de cerca las formaciones geológicas de la zona.

Xabierko Gaztelua

Zer ez ote duten ikasten gure umeek! LHko 2. mailako umeak dira eta dagoeneko Erdi Aroaz hainbat eta hainbat gauza ikasi dute. Sasoi honetakoak dira gazteluak eta ikasitako gaiari amaiera emateko asmotan Xabierko gazteluari egin zioten bisita lehengo azaroan. Zer ez ote zen pasatu ume hauen burutik! Zenbat mamu, printzesa, zaldun, errege ez ote dute ikusi bere irudimenean!

Xabierko gazteluaren inguruko datu asko ezagutu zuten: eraiketari buruzko historia, Xabierko Frantziskoren biografia, gazteluaren zati ezberdinak eta bakoitzaren egitekoa Kanpoko parajea ere zoragarria duenez eta umeek jolasteko nahiko leku dagoenez, ezin hobeto pasatu zuten gure txikiek bisitaldi honetan.

El pasado mes de noviembre los alumnos del 2º curso de Primaria realizaron una visita al castillo de Xabier. Allí pudieron adentrarse en



los misterios y hazañas de la Edad Media, dando así por finalizado todo lo que habían aprendido en las largas sesiones de aula. Conocieron de cerca los pasillos y dependencias de la fortaleza, escucharon datos y hechos de la vida de San Francisco Javier y gozaron a su vez de un bonito entorno.

EGUBERRIKO OPARIAK

Eguberriak badatoz eta hauekin batera, erosketak, opariak eta noski JOSTAILUAK.

Telebistak eta iragarkiak saldu nahia dute eta gure haurrak "bonbardatuta" daude eta ez dute eskatu eta eskatu besterik egiten.

Horren aurrean aholku batzuk eman nahi dizkizuegu. Ez ditzagun haurrak opariz kargatu; maitasuna eta ilusioa ez baitaude oparien kantitatearekin lotuta; ematen eta jasotzen diren moduan baizik.

1. Aukera ezazue jostailua haurrengan pentsatuz; bere gustuak, beharrak, ohiturak eta ez bere kapritxoetan.

2. Guretzat hain politak eta erakargarriak direnak ez dute zertan beraientzat horrela izan beharrik.

3. Haurrek errez aldatzen dituzte beren jostailu zerrenda, beraz, kontutan hartu zein jostailuekin disfrutatu eta entretenituko diren gehien.

4. Adinari egokituia izan dadila, horretarako; jostailuaren informazioa irakurri.

5. Ez nahastu, prezioa eta jostailuaren balorea, ez dute zer ikusirik eta.

6. Saia zaitzete jostailu sortzaileak irudimezkoak eta amets egiten eta ondo pasatzen lagunduko dietenak erosten.

7. Kalitatezko jostailuak eta arrisku gabeak erosi.

8. Jostailuak NEURRIAN erosi. Gehiegi ditzutenean, nahasmena sortzen zaielako eta ez dute behar bezala ez disfrutatzen ez eta baloratzen ere. Gainera haurrak pentsa dezake eskatzea nahikoa dela zerbait lortzeko eta ez diogu laguntzen mundu honetan, dena ez dagola lortzerik ikus arazten.

Gogoratu neurri hau haurren inguruko guztiei (aiton-amonak, izeba-osabak, lagunak...) ez ditzaten alde guztietatik opariak jaso. Ondo neurtu eta antolatu nork eta zer erosi.

9. Bestalde, pentsa dezagun oparirik onena ez dela berak gehien irrikatzen duena. Oparirik onena, gure atentzioa eta denbora dira. Goza dezagun seme-alabez eta seme-alabekin!

10. Landu dezagun haurrekin Olentzerori ezinezkoa zaiola eskatu dioten guztia ekarzerik eta kontsumismotik aldentzen saia gaitzen.

Aholku hauek guztiek, haurrei zoriotsu eta bizitarako prestatuagoak egiten lagunduko diete.

Es de sobra conocido el auténtico bombardeo que en los próximos días nos espera con motivo de los regalos de navidad para nuestros hijos. Por todo ello quisiéramos hacer os una pequeña serie de recomendaciones que pueden ser de gran utilidad.

1.- Haz la elección pensando en sus gustos y aficiones, no en sus caprichos.

2.- Lo que a nosotros nos resulta bonito y llamativo, puede no despertar en ellos ningún interés.

3.- Los niños cambian muy rápido de preferencias; piensa bien con cuál disfrutarán más.

4.- Elige un juguete que de verdad sea apropiado a su edad.

5.- El precio y el valor real del juguete pueden no tener ninguna relación entre sí.

6.- Elige juguetes que desarrollen su imaginación y fantasía.

7.- Elige juguetes que no entrañen ningún peligro.

8.- No compréis demasiados juguetes. Deben aprender a dar a las cosas su verdadero valor.

9.- Intentemos huir del consumismo innecesario.

10.- El mejor regalo que pueden recibir de nosotros es nuestro tiempo, atención y cariño.

"potto.jakintzazu.net"

Zuetatik, denok ez bada ere, askok eta askok bai noski, baduzue aurrez Jakintzako **POTTO** irratia berri. **106,9 FM** behin baino gehiagotan sintonizatuko zenuten eta, besteak beste, musika entzun.

Aurtengo ikasturtean, pausoz pauso irratia erabilera sendotzeko eta sustatzeko asmoz, hobekuntza potolo bat jarri dugu in-darrean. Bertan, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikas-leak jarri ditugu dantzari irratia inguruan. Potto irratitik entzun ahal izango dituzuen saioak anitzak dira. Lehen Hezkuntzan Txa-nelan lantzen duten gaiarekin erlazionatuta egongo da irratsaioa. DBHko etapan, aldiz, saio monografikoak nola gai antzetaoak izango dituzue. Osagai modura denetik jaso ahal izango duzue: albisteak, egural-diaren berri, denborapasak, erreportajeak, errezetak. Horrela, besteak beste, talde-lana dela medio, lanketa aberatsa egiten ari dira euskararen alorrean: gaia hautatu, informazioa bildu, era egokian idatzi, ahaztutako ahazko hizkuntzaren ukituak eman, era esanguratsuak ahoskatu.

Saio hauen grabaketak tutoreen esku egongo dira, nahiz eta Urko irakasle lanki-



dearen laguntza ezinbesteko izan hasiera batean behintzat.

Irratsaioek ez dute ordutegi finkorik. Hala ere, saioa grabatu eta hurrengo astean, **20:00**tan edo **21:00**tan emitituko dira saioak astean zehar (ikasleen adinaren arabera, hau da, ikasle gazteenen saioak lehengo emitituko dira eta helduenena ondoren) eta asteburuetan **15:00**etan.

Aurten berrikuntza batekin datorkigu Potto irratia: blog bat zabaldu dugu sarean eta bertan, emititu diren saio guztiak entzungai egongo dira, ordenagailu batetik nahi du-zuen momentuan entzun ahal izateko.

Ho-rretarako, **potto.jakintzazu.net** helbidera sartzea besterik ez duzue.

Este año hemos querido darle un nuevo impulso a Potto Irratia y para ello se ha buscado una mayor implicación de los alumnos. Por una parte los cursos de Primaria analizarán temas relacionados con el proyecto Txanela que estén tratando en clase; y por otra, 2º de ESO ofrecerá mono-gráficos en torno a asuntos de actualidad.

Las emisiones no contarán con un horario y periodicidad fijas, pero cuando éstas se produzcan serán de ocho a nueve de la noche los días laborables y los festivos a partir de las 15:00 horas.

También queremos recordaros que hemos puesto en marcha una blog en potto.jakintzazu.net. para que hagáis en ella todas las aportaciones que consideréis más oportunas.

2007?08 ikasurteko BERRIKUNTZAK

Iazko ikasturtean egin genuen bezala, aurten ere Gestio Plana aurkeztu genuenean, iraila eta urriko gurasoen bileretan, berrikuntzen aipamena egiten genuen. Hala ere interesgarria iruditu zaigu Jakintzazun, aurtengo berrikuntza nagusiei buruz aipamen batzuk egitea.

Bizikidetzak: Egia esateko ez da gai berria guretzat, izan ere urte batzuk badira, elkarbizitza eta gatazken konponketa eta honelako gaiak jorratzen ari garela. Orain ordea, Eusko Jaurilaritzak eta hiru urteko epean, ikastetxe guztiak bete beharreko zeregin bezala aipatzen du. Jakintza ikastolako guraso, ikasle eta irakasleekin osatutako talde bat martxan jarri da gure ikastolako

Aunque ya fueran dadas a conocer en la presentación del Plan de Gestión Anual, hemos querido ofrecer en este Jakintzazu un pequeño apartado a los planes de innovación previstos para el curso 2007-08.

Plan de convivencia: Se ha creado un grupo de trabajo entre padres y profesores para elaborar

Bizikidetzak plana osatzeko. **Elena Riaño** da arduraduna.

Gela anizkoitza: Teknologia digitalarekin osatu dugu beste gela bat. Teknologia hori oso berezia da eta aukera ematen du ikasleekin burutu behar-reko hainbat jardueran bertan egitea. Horretarako ditugu ordenagailu eramangarriak, arbel digitala etab. Ikasle etorkinak hobeto eta azkarrago es-kolaratzeko erabiliko dugu gela hau. Horrez gain beste lanketa berezi batzuk ere bertan burutzen dira, DBHoko fisika etab.

Ikasdat gurasoak (tutoretza) : Ikasturtea amaitu aurretik martxan jarri nahi dugu berrikuntza plan de convivencia en el centro.

Aula inter-disciplinar: Hemos dotado al centro de una nueva aula con los últimos avances tecnológicos y digitales; la cual será utilizada en la escolarización de aquellos alumnos que, desconociendo totalmente el euskara, se incorporan a nuestro sistema educativo

tza hau. Gurasoei aukera emango zaie ebetik beren seme/alaben informazio akademikoa ikusteko. Honekin batera familia bakoitzaren datuak ebetik eguneratu eta kudeatzeko.

Jakintzazu.net: Jakintza ikastolako komunitate digitala da. Bertan topa ditzakezu zuen seme/alabek eta ikastolako irakasleak sortutako hainbat blog. Gure nahia da blog hauek ezagutaraztea eta Jakintzako gurasoen parte hartzea bultzatzea. Izan ere aukera paregabea eskaintzen dute ikastolako kide ezberdinen arteko harremanak eta partaidetzak sustatzeko. Informazio gehiago nahi bazenu begiratu: jakintzazu.net helbidetan.

Ikasdat: Este curso los padres podrán tener acceso a la información académica de sus hijos a través de nuestra página web.

Jakintzazu.net: Queremos poner en vuestras manos todas aquellas aportaciones realizadas en diferentes blog por integrantes de la ikastola a través de jakintzazu.net.

Eskolako Agenda 21 Jakintza Ikas

Hemen gatzokizue berriro ere Agenda 21eko aurtengo asmoak azaltzera. Dakizuen bezala, Ingurumena lantzeko programa da. Egin beharreko lanketa Curriculumean integratuz, etxean eta ikastolako etapa guztietan kudeaketa jasangarria bultzatzea izango da. Aurtengo helburu nagusiak ondorengoak dira: Inguruko giza-ingurumen egoera ulertu eta garapen jasangarriekin bat datorren kudeaketa bultzatzea.

Ikasturte honetan, iazko gaia ahaztu gabe (kontsumoa murriztuz, hondakinak gutxitu), uraren gaia landuko dugu. Horretarako hainbat jarduerak burutuko ditugu kontuan hartuz ura bizitzaren iturri dela.

Ura, oro har zertarako erabiltzen den, bere erabilera zuzena eta okerra, gizakiok nola zikintzen eta kutsatzen dugun, inguruko ibaia eta erreka aztertuko ditugu, urtegia eta araztegiak zer diren eta nola funtzionatzen duten, gutxiago kontsumitzeko eta kutsatzeko zer egin dezake-

gun, kontsumoa murrizteko proposamenak egitea.



ZER DAGO FAMILIAREN ARDURAPEAN?

Familiaren eragina eskolarena baino dezentez handiagoa da ikasleentzako lorpenetan; egia esan, familiak eskolaren eragin bikoitza du. .

GURASOAK: NOLA PARTE HARTU ETXEAN?

- Eskolak egindako proposamenetan lagundu.
- Familiaren egiteko diren jarduerak egin: inkestak, iritziak..
- Elkarrekin ikasiz, **EA21**en lantzen ari diren

gaiak familian tratatu.

- Etxeko lanak eta erantzukizunak partekatu.
- Inbaditzen gaituen publizitatearekiko jarrera kritikoa hartu.
- Modu arduratsuan kontsumitu.
- Baliabideak aurreztu, hondakinak murriztu, berrerabili, birziklatu.

Honako inkesta hau bidaltzen dizuegu gogoeta gisa. Zuen esku dago gaiarekiko konpromisoa hartzea.

- Ur borrota ahal bezain pronto ixten duzu?
- Ur borrota edota zisterna matxuratzen bada, konpontzen duzu?
- Botatzen al dituzu hondakinak komunetik?
- Kaltegarriak diren produktuak botatzen dituzu komunetik?
- Ura aurrezteko sistemaren bat ezagutzen al duzu?
- Ura aurrezteko komuneko zisternak ezagutzen dituzu?

AGENDA 21 ESCOLAR

Como recordaréis el año pasado nos incorporamos a la Agenda 21, con la intención de realizar su programa durante el curso escolar.

De nuevo nos acercamos a vosotros para comunicaros el programa de trabajo a seguir en este nuevo curso escolar, sin dejar de lado y continuando con la reducción de nuestro consumo y de los residuos que generamos (Las tres erres , **reducir, reciclar y reutilizar**)

El tema que trabajaremos éste año es el **agua**, fuente de vida, en sus distintos ámbitos : su buen uso, su derroche, su contaminación, su potabilización , su depuración, situación y cuidado de nuestro río y riachuelos , pautas para reducir su consumo y contaminación.

¿CUÁLES SON LAS RESPONSABILIDADES DE LAS FAMILIAS?

Para lograr las metas educativas del alumnado la influencia de las familias es muy superior a la de la escuela;

PADRES Y MADRES: ¿CÓMO PARTICIPAR EN CASA?

- ☞ Colaborando en las propuestas hechas por la escuela.
- ☞ Realizando las actividades diseñadas para hacerlas en familia: encuestas, opiniones,
- ☞ Aprendiendo conjuntamente, tratando en el seno de la familia los temas que se trabajan en la **AE21**.
- ☞ Adoptando una actitud crítica frente a la publicidad que nos invade.
- ☞ Consumiendo de manera responsable.
- ☞ Ahorrando recursos, reduciendo residuos, reutilizando, reciclando
- A modo de reflexión os proponemos la siguiente encuesta :
- ☞ Tratáis de reducir el consumo de agua en vuestra casa?
- ☞ Controláis los grifos que gotean o cualquier escape que haya en la conducción del agua en vuestra casa?
- ☞ Controláis la composición de detergentes y artículos de limpieza?



IKASLEAK KAZETARI

Euskaljakintza egitasmoaren helburu nagusia euskarazko irakurmena, idazmena eta ahozko-tasuna kilikatzea da. Helburu horiek lortu nahian, aurtengo ikasturtean, ikasleek euskal gizartekeo esparru ezberdinetako pertsonaia ospetsu ugari elkarrizketatu dituzte: Jon Maia bertsolaria, Aimar Olaizola, Abel Barriola, Xabier Mendiguren Elizegi...

Lan hauek guztiak oihartzun handia izan dute euskal blogosferan zehar eta ikasleak oso motibaturik daude ikasturtean bere onena ematen jarraitzeko. Hona ekarri nahi izan ditugu, euskaljakintza blogean argitaratutako elkarrizketa baten pasarte batzuk. Gehiago irakurri nahi izanez gero, jo helbide honetara: <http://www.euskaljakintza.com>

Ihintza eta Jon Maia

Duela 35 urte Urrethun jaioa dugu Jon Maia. Gaztebo zenean, 11 urterek Zumaia joan zen bizitzera eta bertan hasi zuen egun dena izatera iristeko traiektoria. Bertsolaritza, musika eta letragintza oso lotuta doaz zumaia honen lanean(...)

Asteazken batean, bere ahizpa gidari zuela, Zumaia arantz abiatu zen Ihintza Mendizabaltain beste miresten duen Jon elkarrizketatzeko xedez.

Autoa aparkatu, eta han doa Ihintza hitzordua adosturik zuten lekura. Besaulkian jesarri eta kafetxo bat hartu ondoren hasi zuten elkarrizketa.

Idazten iaioa, abesten aparta, bertsotan paregabea... baina zu, hauetako zein arlotan sentitzen zara erosoen? Eta deserosoen?


Erosoen bertsotan sentitzen naiz, hori baita umea nintzenetik egiten dudana. Hamar urterekin hasi nintzen, orain hogeita hamabost dauzkat, beraz, hogeita bost urte pasa ditut bertsotan. (...) Idaztea lana da niretzat, kosta egiten zait idazten jarzea, (...) Abesten ere gozaten dudala aitortu behar dut: hori kontzertuetan nabaritzen delakoan nago.

"Riomundo" zure eleberrian aipatzen duzu, hasieran oso zaila izan zela zuretzat euskaraz hitz bakar bat ere jakin barik euskaldun giroan bateratzea. Zein dira garai haietako zureun oroitzapenak?

Gaztebo garaian hasiera-hasieratik Urrethuko ikastolara joan nintzen. Etxean erdaraz egiten zuten, eta beraz, nire hizkuntza gazte-lera zen. Nahiz eta euskaraz ikasi ikastolan, bertan bai euskaldunek eta bai erdaldunek, ia denok hitz egiten genuen gazteleza.

Gero, Zumaia etorri nintzenez, hemen jendea, batez ere, euskaraz mintzatzen zen eta hor konturatu nintzen pixka bat zailagoa zela niretzat lehen bezala segitzea. Edade horietan beti izaten dira konplexuak eta horrelako gauzak, bakoitzak bere gauzengatik, eta nik ere banuen nirea; ez nuela hitz egiten besteek bezala euskaraz,

hitz batzuk ez nituen ezagutzen... eta horrelako gauzak.



Nik gaizki pasatzen nuen. (...) Kanpotarroi buruz nola hitz egiten zen... belarimotzak, maketoak koreanoak... denetarik deitzen ziguten. Hamar, hamabi, hamalau... urte izatean horrek denak eragin egiten du. (...)

"Nik behintzat neure buruari ez diot mugarik jartzen, jarriko dizkit bizitzak berak."

Hainbeste urtez bertsotan murgildu ostean, zerk bultzatu zintuen musika talde bat sortzera?

Karidadeko Benta inguruko musikari lagunak ditudalako sortu zen. (...) Enkargu bat eman zidaten eta bertatik tiraka-tiraka lan bat egin genuen. (...) tonto-tonto sei urtez aritu gara lanean.

Karidadeko Benta, izen honekin bataiatu duzue musika taldea. Nondik datorkio izen bixi hau?

Garai bateko benta zahar batetik datorkio izena. Benta hau Billabona inguruan zegoen eta Pello Errotak bere bertsotik aipatzen du. (...) Bertso hori famatua izan da, garai bateko sei bertsolariren izenak esaten dituelako bertso bakar batean, eta denak zeuden Karidadeko Bentan. (...)

Dagoeneko kaleratuak dituzue hiru disko eta guz-tietan gizartearen pil-pilean dauden zenbait gai jo-rratzen dituzue umorearen laguntzaz: maitasuna, errealitate politikoa, (...) Zein da zure helburua abesti hauek idatzi eta abesterakoan?

Zerbait konkretuki kontatzea, jendearen arreta bereganatuko duena, esaten dugunagatik edo esateko moduagatik. Karidadeko Benta istorio asko kontatu ditugu, (...) askotan umore handiz eta ironiarekin. Nik uste dut euskal musikan ez dagoela umorerik apenas, (...) Baina, gure kantuek badute umore puntu hori. (...)

Karidadeko Benta duela gutxi ibi ditu bere atek. Ze zapore utzi dizu sei urteko ibilbide honen amaierak?

Espero genuena baino ibilbide luzeagoa egin dugu, egia esan. Ateak ibi ditugu, baina pozik. (...) Bertsolarismo; la satisfacción que siente al componer e interpretar su música, al escribir sus no-

kontzertuan bi mila pertsona inguru elkartu ginen. Agurra, beraz, hunkigarria eta ahazteza izan da.

Hainbeste saltsatan sartuta egonik, nola moldatzen zara bizitza pribaturako tarte bat izateko?

Batzuetan larri. Batzuetan oso zoroa eta irregularra da gure ibilera, edozein ordutan edozein lekutan baitzaude. (...) Boladak izaten dira, baina ni hainbeste gauzetan batera ibiltzen naizenez, nahiko zoraturik nabil beti. (...) Azkeneko lau urteotan hiru disko, bi liburu, bi txapelketa, espedizio bat eta zazpiehun bat emanaldi-bertero, hitzaldi eta kontzerturen artean gauzatu ditut. (...) Eta uk, zoritxarrez, ez daukagunez sekretario bat hartzeko adina diru, bada...zorarena. (...)

Bertsolaria, idazlea, abeslaria, bidaiaria non ikusiko dugu etorkizunean Jon Maia?

Agian hor aipatu ez duzun beste zerbaitetan, auskalo. Nire bizitza zer izango den ez jakitea gustatzen zait. Horrela bizitzera ohitu naiz (...) baina beti nago prest gauza berriren bat ezagutzeko eta probatzeko. Nik behintzat neure buruari ez diot mugarik jartzen, jarriko dizkit bizitzak berak.

Lan hauen kalitatea ikusteko lagin honekin nahi-

Nolaz erabaki zenuen Jon Maia elkarrizketatzea?

Ba... egiten duen lana atsegina zaidalako; eta bera miresten dudalako.

Berarekin elkartzeko erreparorik sentitu al zenuen?

Hasieran urduritasun apur bat sentitu banuen ere, gero bera asko erraztu zidan lana.

Azkenean ze sentazio geratu zaizu?

Ezin atseginagoa izan zen. Nire iritziz, profesional aparta izateaz gain pertsona paregabea dugu Jon, eta biziki eskertu nahi diot nirekin elkarrizketa egiteko tarte bixi hura hartu izana.



Dentro de la actividad escolar de Ja... les propuso a los alumnos entrevistar de reconocida fama: al bertsolaria Jon Aimar Olaizola, a Xabier Mendiguren E. Todos los trabajos se pueden leer nt en <http://www.euskaljakintza.com>.

Como muestra hemos querido presentar aqu un extracto de la entrevista que Ihintza Mendizabal al bertsolaria, m s escritor Jon Maia. En l cuenta lo ma pas en Zumaia por ser de origen extreme o; cómo lo superó con el bertsolarismo; la satisfacción que siente al componer e interpretar su música, al escribir sus no-



1984-85 ikasturteko argazkia,
Ezkerretik eskuinera

Gorka Usabiaga, Egoitz Otegi, Gorka Zudaire, Iban Zarrabeitia, Urko
Goldain, Asier Garmendia, Alaitz Romo, Raul Feliz, Alaitz Mendizabal, Ibai
Elosegi, Rosarito andere oa, Eneko Lamarka eta Urtzxi Mujika.

Belauniko

Amalur Mateo, Maider Otegi, Garbi e Astudillo, Alaitz Iraola, Leire
Serrano, Ainhize Lasa, Gema de Marcos, Hirune Iraola eta Aingeru
Ibarguren.

Altamira auzoa z/g
tfno. 943 16 05 40
faxes. 943 16 07 90
20240 ORDIZIA
ordizia@ikastola.net

